**1257**

49/2006 DEKRETUA, otsailaren 28koa, Energiaren Euskal Erakundeari Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. sozietate berrian parte hartzeko baimena emateko dena.

Euskadiren Ondareari buruzko uztailaren 27ko 14/1983 Legearen 44.2. artikuluan xedatzen denez, Jaurlaritzak baimena eman diezaieke zuzenbide pribatuko ente publikoei edozein eratako sozietateak sortzeko edo horietan parte hartzeko, ente horien aurrekontuen kargura eta betiere Ekonomia eta Ogasun sailburuak eta delako enteek gainetik duten saileko buruak, biak batera, proposaturik.

Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasuntza Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak 20.3 artikuluan ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko edo bere erakundeetako baltzu publikoak sortu eta desagerrarazteko eta eratutako baltzuetako partaide nagusi bilakatu ahal izateko edo partaide nagusi izateari uzteko, Jaurlaritzaren dekretua beharko dela.

2005eko abenduaren 19an egindako batzarrean, Energiaren Euskal Erakundearen Zuzendaritza Kontseiluak honako hau erabaki zuen: Eusko Jaurlaritzarengana jotzea baimena eman diezaion Energiaren Euskal Erakundeari, jatorri berriztagarriko energia ekoiztu eta saltzeko, Haranako Udalarekin batera Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. sozietatearen eraketan parte hartzeko, 286.000 euroko kapital sozialetik 274.000 euroko ekarpena eginez. Horretarako, aurreko paragrafoetan zehaztutakoaren arabera, beharrezkoa da Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena izatea.

Ondorioz, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuak eta Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuak proposatuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko otsailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*Artikulu bakarra.*– Baimena ematea Energiaren Euskal Erakundeari Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. sozietate berrian parte hartzeko berrehun eta hirurogeita hamalau mila eurorekin (274.000), sozietatearen kapital guztia berrehun eta laurogeita sei mila eurokoa (286.000) izanik.

**1257**

DECRETO 49/2006, de 28 de febrero, por el que se autoriza al Ente Vasco de la Energía la participación en la nueva sociedad pública Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A.

El artículo 44.2 de la Ley 14/1983, de 27 de julio, de Patrimonio de Euskadi, dispone que el Gobierno podrá autorizar a los Entes Públicos de Derecho Privado la creación o participación en Sociedades de cualquier clase, con cargo a sus respectivos presupuestos, mediante Decreto a propuesta conjunta del Consejero de Economía y Hacienda y del Consejero del Departamento del que dependan los Entes Institucionales mencionados.

El artículo 20.3 del Decreto Legislativo 1/1997, de 11 de noviembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco establece que la creación y extinción de sociedades públicas, así como la adquisición o pérdida de la condición de partícipe mayoritario en las mismas de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi o de sus entes institucionales, precisarán de decreto del Gobierno.

Habiendo adoptado el Consejo de Dirección del Ente Vasco de la Energía, con fecha 19 de diciembre de 2005, el Acuerdo de dirigirse al Gobierno Vasco para que conceda autorización al Ente Vasco de la Energía a participar junto con el Ayuntamiento del Valle de Arana en la constitución de la sociedad Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. para la producción y venta de energía de origen renovable, con una aportación de 274.000 euros de un capital social de 286.000 euros, y requiriendo, de conformidad a lo expuesto en los párrafos anteriores, de autorización del Consejo de Gobierno.

En su virtud, a propuesta de las Consejeras de Hacienda y Administración Pública y de Industria, Comercio y Turismo, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su reunión celebrada el día 28 de febrero de 2006,

DISPONGO:

*Artículo único.*– Se autoriza al Ente Vasco de la Energía para participar en el capital social de la nueva sociedad pública Hidroeléctrica Harana - Kontrasta, S.A. por un importe de doscientos setenta y cuatro mil euros (274.000 euros) de un capital social total de doscientos ochenta y seis mil euros (286.000 euros).

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau onartzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2006ko otsailaren 28an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburua,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto surtirá efectos el mismo día de su aprobación.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de febrero de 2006.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

La Consejera de Industria, Comercio y Turismo,
ANA AGUIRRE ZURUTUZA.

## OSASUN SAILA

### 1258

EBAZPENA, 2006ko otsailaren 8koa, Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariarena, Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoaren osaera aldatzeko dena.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariaren 2005eko otsailaren 22ko Ebazpenaren bidez, egiaztagiria eman zitzaion Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Batzorde Etikoari (martxoaren 17ko EHAA, 53. zenbakia).

Farmaziako Zuzendaritzak eskaera egin du Batzordean beste batzordekide bat sartzeko. Beraz, Osasun sailburuaren 1994ko irailaren 28ko Aginduaren 3. eta 7. artikuluetan agintzen denarekin bat etorriz (Euskal Autonomia Erkidegoko Ikerketa Klinikoetarako Komite Etikoen kreditazioari buruzko agindua; urriaren 24ko EHAA, 202. zenbakia), hau

EBATZI DUT:

***Lehenengoa.***– Euskadiko Ikerketa Klinikoetarako Etika Batzordeko kide izendatzea Javier Elorz Lambarri jauna, Medikuntza eta Kirurgia orokorrean lizentziatua.

***Bigarrena.***– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik aurrera izango du eragina.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen. Beraz, interesatuek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Osasun sailburuordeari edo Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena ofizialki argitaratzen denetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko otsailaren 8a.

Osasun Plangintza eta Antolamenduko zuzendaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.

## DEPARTAMENTO DE SANIDAD

### 1258

RESOLUCIÓN de 8 de febrero de 2006, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, por la que se modifica la composición nominal del Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Mediante Resolución de 22 de febrero de 2005, de la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria (BOPV n.º 53, de 17 de marzo), se concede la acreditación al Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi.

Habiéndose recibido de la Dirección de Farmacia comunicación de solicitud de incorporación de un nuevo vocal al comité, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 3 y 7 de la Orden de 28 de setiembre de 1994, del Consejero de Sanidad (BOPV n.º 202, de 24 de octubre), de acreditación de los Comités Éticos de Investigación Clínica en la Comunidad Autónoma del País Vasco,

RESUELVO:

***Primero.***– Nombrar como vocal del Comité Ético de Investigación Clínica de Euskadi a D. Javier Elorz Lambarri, Licenciado en Medicina y Cirugía General.

***Segundo.***– La presente resolución surtirá efecto a partir de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Contra la misma, que no agota la vía administrativa, podrán los interesados formular recurso de alzada ante el Viceconsejero de Sanidad o la Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria, en el plazo de un mes a partir de su publicación oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 8 de febrero de 2006.

La Directora de Planificación y Ordenación Sanitaria,
M.ª LUISA ARTEAGOITIA GONZÁLEZ.